Eusko Label Bigarren Saria

4.000 euroko saria bigarren film labor onenari.

Gatz Harana / Salt Valley (Espainia) / Saioa Miguel (Espainia)



Eusko Label sariak emateko ekitaldia.

Beste sari ofizial batzuk

Loterías Sariak

Loterías Lehen Saria

10.000 euroko saria gai sozialeko film labor onenari.
Maruja (Espainia) / Álvaro G. Company (Espainia)

Loterías Bigarren Saria

5.000 euroko saria gai sozialeko bigarren film labor onenari.
Medusas / Jellyfish (Espainia) / Iñaki Sánchez Arrieta (Espainia)



Loterías sariak entregatzeko saioaren irudia.

Euskal Zinemaren Irizar Saria

20.000 euro filmaren ekoizleentzat.

Los domingos / Sundays (Espainia - Frantzia) / Alauda Ruiz de Azúa (Espainia)

Aipamen berezia

El último arrebato / The Last Rapture (Espainia) / Marta Medina (Espainia), Enrique López Lavigne (Espainia)



Alauda Ruiz de Azúa Irizar sariagatik eskerrak ematen.

Beste sari ofizial batzuk

Donostia Hiria Publikoaren Saria

Saria saileko film bakoitzaren lehendabiziko emanaldi publikoan diren ikusleek ematen dute. Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari biltzen ditu: Film Onenaren saria, 50.000 euroz hornitutakoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 euroz hornitutakoa. Filmak Espainian banatzen dituzten enpresentzat dira sariak.

The Voice of Hind Rajab (Tunisia - Frantzia) / Kaouther Ben Hania (Tunisia)

Donostia Hiria Publikoaren Saria Europako Film Onenaren Saria

Amélie et la métaphysique des tubes / *Little Amélie or the Character of Rain* (Frantzia) / Mailys Vallade (Frantzia), Liane-Cho Han (Frantzia)



Motaz Malhees aktoreak eta Odessa Rae ekoizleak Publikoaren Saria jaso zuten *The Voice of Hind Rajab* filmagatik.

Gazteriaren DAMA Saria

La misteriosa mirada del flamenco / *The Mysterious Gaze of the Flamingo* (Txile - Frantzia - Alemania - Espainia - Belgika) / Diego Céspedes (Txile)



Diego Céspedes, gazteriaren DAMA sariagatik eskerrak ematen.

Industria Sariak



Donostia Zinemaldiko Industria Sariak irabazleen familia-argazkia.

WIP Latam sariak

WIP Latam Industria Saria

A contracorriente Films, Best Digital, Deluxe Content Services Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Vídeo, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin eta Espainian banatzea.

Moscas / Flies, Fernando Eimbcke (Mexiko) eta Kinotitlán-ek ekoiztua (Mexiko)

WIP Latam onenarentzako EGEDA Platino Industria Saria

30.000 euro ekoizle gehiengodunarentzat.

A la hora de poner la mesa ya no éramos cinco / We Were No Longer Five, Esteban Hoyos García (Kolonbia), Juan Miguel Gelacio Ramírez (Kolonbia) eta Selva Producciones-ek ekoiztua (Kolonbia - AEB)

WIP Europa Sariak

WIP Europa Industria Saria

A contracorriente Films, Best Digital, Deluxe Content Services Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Vídeo, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin, hala badagokio gaztelaniazkoekin eta Espainian banatzea.

Sari hau irabazten duen filmak gainera, WIP Europa Saria ere jasotzen du (10.000 euro).

Sieben Tage Februar / February, Seven Days, Tatjana Moutchnik (Alemania) eta Wood Water Films GMBH-k ekoiztua (Alemania - Austria)



Industria Sariak

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Sariak

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenari Saria

Zinemaldiak ematen duen sari hau 10.000 eurokoa da eta ekoizle gehiengodunari ematen zaio.

No me dejen morir solo / Do Not Let Me Die Alone, Francisco Rodríguez Teare (Txoñe) eta Axolotl SPA-k ekoiztua (Txile - Belgika)

DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena)

DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena), Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarteak (EFAD) eta Iberoamerikako Ikusentzunezko Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CAACI) ematen dute 10.000 euroko saria da, proiektu irabazlearen produktore gehiengodunarentzat.

Lo que sigue es mi muerte / What Follows Is My Death, Laura Baumeister (Nikaragua) eta Tarco Estudio-k ekoiztua (Mexiko - Espainia)

ArteKino International Prize

6.000 euroko saria proiektu irabazlearen ekoizle gehiengodunarentzat.

La piel del león, Alvaro Brechner (Uruguai) eta Tornasol Media-k ekoiztua (Esainia - Uruguai - Brasil)

Casa Wabi-Escine Saria

Bost asteko egoitza artistiko bat da, Mexikoko Puerto Escondidoko Casa Wabin, lehen edo bigarren film luze baten garapenean oinarritua.

No me dejen morir solo / Do Not Let Me Die Alone, Francisco Rodríguez Teare (Txile) eta Axolotl SPA-k ekoiztua (Txile - Belgika)

QCINEMA Saria

4.000 euro proiektu irabazlearen ekoizle nagusiarentzat.

Lo que sigue es mi muerte / What Follows Is My Death, Laura Baumeister (Nikaragua) eta Tarco Estudio-k ekoiztua (Mexiko - Espainia)

Ikusmira Berriak Saria

SIDERAL Saria

10.000 euroko saria, filma nazioartean banatzeko gutxieneko berme gisa.

La Koreana, un poema ferromagnético de luz y memoria, Joana Moya Blanco (Espainia) eta Sirimiri Films-ek ekiztua (Espainia)

Zinemaldia Startup Challenge Sariak

Espainiako proiektu onena

10.000 euroko saria.

Quickets / Felipe Ortiz Sánchez (Espainia)

Europako proiektu onena

10.000 euroko saria.

Novel Fire Masks Engineered With 3D Technology / Raoul Peltier (Erresuma Batua)

Ekintzailtza onenari aipamen berezia

3.000 euroko saria.

Quickets / Felipe Ortiz Sánchez (Espainia)

Gainera, hautatutako hamar proiektuek dohainik BIC (Business Innovation Centre) bateko inkubaziogunean euren proiektuaren garapena bizkortzeko aukera daukate Euskadiko Parke Teknologikoen Sarean dauden BIC-en batean.

Beste Industria Sari batzuk

XXI Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroaren Sariak

Music Library&SFX Saria

Mariana x BHP, Renan Flumian eta Droma Productions-ek ekoiztua - Quijote Films (Brasil - Txile)

Dokumnetal Eurorregionala Saria

Altzaliliak, Maia Iribarne Olhagarai eta Doxa Producciones - Gastibeltza Filmak enpresek ekoiztua (Espainia - Frantzia)

EPE-IBAIA-Elkargi Saria

La increíble historia de una película que no hemos visto, Claudia Chavez Levano, Christine Mladic Janney eta Amazona Producciones - Eleven Hands enpresek ekoiztua (Peru - AEB)

Beste sari batzuk

RTVE-Beste Begirada Saria

Las corrientes / The Currents (Suitza - Argentina) / Milagros Mumenthaler (Argentina)

Aipamen berezia

Belén (Argentina) / Dolores Fonzi (Argentina)

Espainiako Lankidetza Saria

10.000 euroko saria. Sail Ofizial, New Directors eta Horizontes Latinos sailatarako hautatutako filmen artean aukeratzen da, giza garapenari, pobreziaren erradikazioari eta giza eskubideen egikaritze osoari ekarpen onena egiten dien film iberoamerikarraren egilearentzat.

Historias del buen valle / Good Valley Stories (Espainia - Frantzia) / José Luis Guerin (Espainia)

Agenda 2030 Euskadi Basque Country Saria

The Voice of Hind Rajab (Tunisia - Frantzia) / Kaouther Ben Hania (Tunisia)



Ibone Bengoetxea lehendakariordea eta José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendaria, Motaz Malhees eta Saja Kilani *The Voice of Hind Rajab* filmaren protagonistekin batera.

Dunia Ayaso Saria

Los Tortuga / The Exiles (Espainia - Txile) / Belén Funes (Espainia)

Aipamen berezia

Mi amiga Eva / My Friend Eva (Espainia) / Cesc Gay (Espainia)

Sari paraleloak

FIPRESCI Saria

Los domingos / Sundays (Espainia - Frantzia) / Alauda Ruiz de Azúa (Espainia)

Feroz Zinemaldia 2025 Saria

Los domingos / Sundays (Espainia - Frantzia) / Alauda Ruiz de Azúa (Espainia)

Euskal Herriko gidoilari onenari GIDOI + SGAE Saria 2025

Borja Cobeaga (España), *Los aitas / Breaking Walls* (Espainia - Belgika)

Sebastiane 2025 Saria

Maspalomas (Espainia) / Jose Mari Goenaga (Espainia), Aitor Arregi (Espainia)



Aitor Arregi, Jose Ramon Soroiz, Jose Mari Goenaga eta Samantha Hudson, abeslari, gidoilari, aktore eta artista, Sebastiane saria *Maspalomas* filmari eman zion Gehituren epaimahaiko kidea izan zena.

Lurra – Greenpeace Saria

Historias del buen valle / Good Valley Stories (Espainia - Frantzia) / José Luis Guerin (Espainia)

Signis Saria

Los domingos / Sundays (Espainia - Frantzia) / Alauda Ruiz de Azúa (Espainia)

Ateneo Guipuzcoano Saria

Nuremberg (AEB) / James Vanderbilt (AEB)

Ohorezko sariak

Esther García

Ekoizlea, [Donostia Saria](#)



“Eskerrik asko Donostia Saria oso agerikoa ez den diziplina bati emateagatik. Nire hastapenetan, oso emakume gutxi ginen zinemaren munduan, baina borrokatu ginen eta jarraitu genuen gure espazioa lanbide maitatu honetan bilatzen. Askok dago oraindik egiteko. Urrats bat ere ez atzera, lagunak”, aldarrikatu zuen Esther García, Agustín eta Pedro Almodóvarren eskuetatik Donostia saria jaso ondoren (Almodovar anaiak bere bazkideak dira 2025ean 40 urte bete dituen El Deseo ekoiztetxean).

Ohorezko sariak

Jennifer Lawrence

Aktorea, ekoizlea eta zuzendaria, [Donostia Saria](#)



“Nik baino lehen, Meryl Streep paregabeak, Pedro Almodovar handiak, Lauren Bacall ikonikoak eta beste artista batzuek jaso dute sari hau. Hau zoriona eta lilura nik ere sari hau jasotzea! Haien ekarpenek eta ausardiak zinema markatu dute, eta bizitza osoan inspiratu naute, bai pertsonalki eta bai sormenari dagokionez. Beraz, ia ezin dut sinetsi ere egin artista horietako bat naizela. Eskerrik asko. Ezin bereziagoa da. Ohore handia da”, esan zuen Jennifer Lawrencek J. A. Bayonaren eskutik Donostia saria jaso zuenean.

Ohorezko sariak

Asier Altuna eta Telmo Esnal

Zinemagileak, [Zinemira Saria](#)



“Hasieratik, euskaraz hasi ginen gure pelikulak egiten, naturaltasun osoz eta errealismotik abiatuta. Poliki-poliki hasi ginen sinesten hemen zinema egin eta zinematik bizitzea posible zela, gurearen aurreko belaunaldiak aukeratu zuen Madrilerako bidea hartu beharrik izan gabe. Pozgarria da ikustea non gauden orain, Euskal Herria zinema egiteko toki interesgarri bihurtu baitugu”, ziurtatu zuten Asier Altunak eta Telmo Esnalek Zinemira Saria jaso zutenean.



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Hizketaldiak

SSIFF

2025
Iraila
Septiembre
19/27

73

Hizketaldiak

Hizketaldiak Donostia Zinemaldiaren atal bat da. Zinemari buruzko elkarrizketa industriaren, sormenaren eta prestakuntzaren ikuspegitik sustatzeko sortu zen. Tabakaleran du egoitza nagusia (Zinema Aretoa eta Z Aretoa), eta hainbat elkarrizketa ditu. Horiei esker, zinemaldiak irauten duen bederatzi egunetan, zinemagileen sormen-prozesuetan sakondu daiteke, edo zinema-industriaren joerei eta erronkei buruz jardun daiteke. Era berean, eztabaida sozial nagusiek zineman duten eraginaz eta zinemaldiak gai horietan duten erantzukizunaz eztabaidatzeko gunea da.



Claire Denis, *Le Cri des Gardes* / *The Fence* filmaren egilea (Sail Ofiziala), hizketaldiaren une batean.

Nest hizketaldia: Claire Denis - *Le Cri des Gardes*

Irailak 22 (astelehena), Tabakalera, 1. aretoa

Claire Denis (zinemagilea): “Beldurtia eta kezkatia naiz, beraz, ez diot nire senari jaramon handirik egiten, arrazoizkoa izaten saiatzen naiz. Arriskutsua iruditzen zait emozioei jarraitzea. Uste dut errodaje bat denboraren kontrako bataila bat dela nolabait, hemen dauden eta dakitenentzat. Senezkoa dena ulergaitza da, bizirik irauteko edo egokitze modu bat ia. Ez da iturri bat bezala ateratzen den sen artistikoa; aitzitik... bizirik irauteko sena da; serioa dirudi, baina filma salbatzeko modu bat da, denborarik ez galtzeko eta joaten ez uzteko modu bat”.



Hizketaldiak



Epaimahai Ofizialeko kide izatez gain, Gia Coppola zinemagileak Hizketaldiak atalean parte hartu zuen.

Nest hizketaldia: Gia Coppola

Irailak 23 (asteartea), Tabakalera, 1. aretoa

Gia Coppola (zinemagilea): “Zenbait alditan asko inplikatu naiz emozionalki proiekturen batean eta gero porrot egin du. Oso nahigabetuta sentitzen zara. Maiz esaten dudanez, hein handi batean filmak egitea elkarrekikoa ez den maitasun bat sentitzea bezalakoa da. Orain dela gutxi deskubritu dut ez dudala hori egingo. Bidaiari ekingo diot eta ahal dudan guztia ikasiko dut, argi berdearen zain egon gabe; izan ere, gertatzen dena gertatzen dela ere, prozesu atsegingarria da. Askok ikasten duzu eta norabait iritsiko da, proiektu honetan edo ez”.



Jaume Claret Muxart, *Estrany riu / Strange River* Zabaltegi - Tabakalera saileko filmaren zuzendaria.

Nest hizketaldia: Jaume Claret Muxart - Estrany Riu

Irailak 24 (asteazkena), Tabakalera, 1. aretoa

Jaume Claret Muxart (zinemagilea): “Bada zerbait oso garrantzitsua nire ustez: pazientzia izatea eta presarik ez izatea filma nork ekoitziko duen erabakitzeko. Bilerak asko egin behar dira jende askorekin, azkenik, ekoizleak konfiantza eman diezazun nahi duzun filma egiteko nahi duzun taldearekin. Nik hiru urte behar izan nituen ekoiztetxea aurkitzeko. Ausartak izan ziren ekoizleak, azken batean, lehen *opera prima* bat baitzen, baina haiek ere uste zuten gaizki ateratzen bazen ikasteko modu bat ere bazela. Eta, gero, lagunekin lan egitea, proiektua axola zaion gertuko jendearekin lan egitea; izan ere, errodajearen uneren batean mundu guztia nekatuta dago eta jendeak ez badu proiektua zuk bezainbeste maite sententzio txarra sortzen da. Zinemagile askori entzun diet: “Bueno, errodajea oso jasankorra da, asko jasaten dut”. Ez nuen sufritu nahi. Bost urtez proiektua lantzen eman ondoren, gozatu egin nahi nuen”.



Hizketaldiak



José Luis Guerin eta Jonás Trueba, Sail Ofizialean lehiatu zen eta Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen *Historias del buen valle* / *Good Valley Stories* filmaren zuzendaria eta ekoizlea.

Nest hizketaldia: Jonás Trueba eta José Luis Guerin – *Historias del buen valle*

Irailak 26 (ostirala), Tabakalera, 1. aretoa

José Luis Guerin (zinemagilea): “*Zoriarekiko itun* esaten diodan horretatik elikatzen naiz asko. Dena oso kalkulaturik, oso idatzita edo itxita badago, zinemarekiko grina galtzen dut. Grina hori jatorri erlijiosoko grina batekin lotu dut asko, errebelazio bat bizitzearen grinarekin. Transzendentzia-grina ere bada, nire aukeretatik at dagoen heinean: nik gidoi batean idatzi ezingo nituzkeen gauzak dira”.

Jonás Trueba (zinemagile eta ekoizlea): “Zuk belar txar batzuk filmatzen ari zara eta Satyajit Rayren belar txarrak ikusten ari zara, edo Murnau edo John Ford ikusten ari zara hesiaren plano bat filmatzen duzunean atzealdean trenea igarotzen ari dela. José Luisen oso barneratuta du zinemaren zirrara hori eta, xumeenean, zinema, zinemagile eta zinemaren historiarekiko harreman bat ikusarazten dizu. Izan ere, bera ikusle aparta da. Azken batean, hori dira zinemagile handi guztiak”.



Harris Dickinson zuzendaria hizketan eta hari begira Archie Pearch, Devísio Pictureseko bere bazkidea, aurtun *Urchin* (Zabaltegi - Tabakalera) ekoitzi duena.

Harris Dickinson eta Archie Pearch (Devísio Pictures)

Irailak 20 (larunbata), Tabakalera, 1. aretoa

Harris Dickinson (zuzendari, aktore eta ekoizlea): “Joera handia dago pentsatzeko zinema lanbide oso zaila dela eta ez dela oso errealista, baina, egia esateko, aukera asko daude zineman, antzerkian, telebistan... Gainera, film asko ikusten saiatu behar zara eta, gero, urteak bete ahala, hasiko zara sentitzen benetan horretan jardun nahi duzun bizitzan; izan ere, maitatu egin behar duzu, ezta? Barru-barrutik maitatu behar duzu”.

Archie Pearch (ekoizlea): “Uste dut komunitatea ere oso garrantzitsua dela. Orain, denok ditugu iPhoneak. Lagun talde bat bildu eta ahal den guztia egitera joan behar da. Hori, lagun-komunitate bat sortzea, oso garrantzitsua da ere. Kameraren aurrean eta atzean egon behar da, zer gustatzen zaizun ikusi eta hortik abiatuta lan egiten hasi”.



Hizketaldiak



Alexandre Desplat eta Alberto Iglesiasen Paula Olaz konpositoreak moderatutako hizketaldi batean parte hartu zuten.

Alexandre Desplat eta Alberto Iglesias

Irailak 20 (larunbata), Tabakalera-Z aretoa

Alberto Iglesias (musikaria): “Hasi nintzenean, musika nuen babesleku. Agian ez nekien nor nintzen, baina banekien musika gustatzen zitzaidala. Edozein zale mundutik babesten du musikak; maitasunean eta pozean laguntzen du, bai eta norberaz ahazten ere. Uste dut oso ona dela norberaz ahaztea. Musikak bizitzera eta erabakiak hartzera animatu eta animatzen nau”.

Alexandre Desplat (musikaria): “Oso bitxia da. Egia da oso lan bakartia egiten dugula, baina jasaten dugu bakardadea, musika mundu amaigabea baita eta, hari esker, gure antsietate, min eta abarrak komunikatu baititzakegu. Gainera, filma dugu; hor dago eta horrek ere laguntzen digu beste pertsona baten istorioan gure burua proiektatzen, kontatzen diguten eta zuzendari horrekin kontatu nahi dugun istorio batean. Beraz, behartutako bakardade bat da, baina, hain zuzen ere, bakardade ezin oparoagoa”.



Joachim Trier zinemagilea, *Affeksjonverdi / Sentimental Value* filmaren (Perlak) egilea, María Zamora ekoizleak moderatutako hizketaldi baten protagonista izan zen.

Joachim Trier

Irailak 21 (igandea), Tabakalera, 1. aretoa

Joachim Trier (zinemagilea): “Orain haurrak ditut, haur txikiak, eta nahiko etsita nago munduko gauza askorengatik eta ez dakit nola kudeatu polarizazio izugarria eta diskurtsoaren klima oldarkorra. Ondo baino hobeto ulertzen dut garrasi egiteko beharra eta oso-oso haserre egotea. Ulertzen dut, baina kasu honetan, maila pertsonalean, adiskidetze-istorio bat partekatu nahi nuen, eta maitasunaren intimitatea, leuntasuna, esperantza eta boterea aurkitzen saiatu. Badakizu, bai Erich Fromm irakurtzen baduzu bai The Beatles entzuten baduzu, energia hori munduan ere badago. Arteak jarrera erradikala har dezake, norbera aurkitzeko eta bestea entzuteko aukera dagoela baieztatzean. Hori oso boteretsua da, beraz, bai: samurtasuna punk berria da”.

Hizketaldiak



Eguna amaitzeko, familia-argazkia egin zen Tabakaleraren eskaileretan.



Sara Hernández moderatzailea Rafa Alberola, Mariona Claveria, Maialen Franco, Inés Enciso eta Juan Zavalarekin.

Egungo ikus-entzunezko industriari buruzko diagnostiko feministak

Irailak 22 (astelehena), Tabakalera-Z aretoa

- Aniztasunaren tranpak: zergatik ez du denak balio. ODA - Espainiako Ikus-entzunezko Komunikabideetako Aniztasunaren Behatokia.
- Zinemagile emakumeak indarkeria sexualaren aurrean: ordezkartza eta erreparazioa *La furia* (2025) filmean. **Beatriz Aparicio** (RTVE Berdintasun Behatokia), **Gemma Blasco** (*La furia*ren zuzendaria eta ko-gidoilaria), **Mireia Graell** (*La furia*ren ekoizlea).
- Eduki deserrosoa: nor ari da aniztasunari beldur? **Alaitz Arenzana** (zuzendaria eta artista), **Jule Goikoetxea** (EHU), **Silvia Albert Sopale** (Periferia Címaronas).
- Elkartek: kolektiboa erresistentzia gisa. **AAMMA** (**Pilar Crespo**), **DONA I CINEMA** (**Deborah Micheletti**), **MIA** (**Sonia Estévez**), **CIMA** (**Alba González de Molina**), **Dones Visuals** (**Yolanda Olmos**), **AMMA** (**Cecilia Ibáñez**), **(H)emen Elkartea** (**Kristina Zorita**).
- (H)emen argazkia. Lekua: Tabakalerako eraikinaren eskailera, Cristina Enea parkearen ondoan.

Sorkuntza sustatuz: Espainiako egonaldi programen eta laborategien ikuspegi orokorra

Irailak 24 (asteazkena), Tabakalera-AV Laborategia

Sorkuntza-prozesuak filmak heltzeko tresna funtsezko gisa sendotzen ari diren une honetan, Espainiako laborategi eta erresidentzia batzuk elkartu ziren solasaldi honetan. Orain arte egindakoaren balantzea egiteko, ikaskuntzak partekatzeko eta lurralde eta lan-eredu desberdinak gurutzatzen dituzten esperientziak elkarbanatzeko gunea izan zen. Truke puntaletik harago, mahai honek denboran zehar iraungo duen elkarriketa baten oinarriak ezartzea zuen helburu, proiektu horien artean, zeinen xede nagusia zinemagileak beren lanen garapenean laguntzea baita.

Parte-hartzaileak: **Inés Enciso** (Espainiako Zinema Akademiako Garapen Saileko koordinatzailea), **Rafa Alberola** (ECAM Industriako arduraduna), **Mariona Claveria** (Kataluniako Zinema Akademiako Gidoi Egoitzako koordinatzailea), **Juan Zavala** (DAMAn eduki arduraduna), **Maialen Franco** (Donostiako Zinemaldiaren prestakuntza-programetako arduraduna).



IKUSMIR <
BERRIK <

>A.W.A

RE
SI
DEN
CIAS
ACADEMIA DE CINE

SSIFF

RESIDENCIA DE GUIONS

RESIDENCIA
DE GUIONS
DE L'ACADÉMIA
DEL CINEMA CATALA

ECAM

Hizketaldiak



Inés París (erdian) Pablo Berger, Daniela Fejerman, Isaki Lacuesta eta Julio Medem protagonista izan zituen hizketaldia moderatu zuen.

ACCIÓN-eko I. Topaketa, Espainiako Zinema Zuzendarien Bilera

Irailak 25 (osteguna), Tabakalera-Z aretoa

- Zuzendariaren askatasun sortzailea. **Pablo Berger, Isaki Lacuesta, Daniela Fejerman** eta **Julio Medem**.
- Nazioarteko Topaketa. Europar Manifestua. **Bill Anderson** (FERAko presidentea), **Marine Francen** (SRFko copresidentea), **Jérôme Enrico** (L'ARPEko presidentea), **Pilar Pérez Solano** (ACCIÓNeko presidentea).
- Zuzendari-ekoizlearen figura. **Helena Taberna, Manuel Martín Cuenca, Paula Palacios**.
- Zuzendaritza eta serieak. **Belén Macías, Ramón Salazar, Juana Macías**.

ACCIÓN! Asociación de Directores

>A-WA

fundación sgae



Carmina Gustránek, Espainia Askatasunean, 50 urte ospakizunaren komisarioak Nicolás Sesma Landrin, Valeria Camporesi eta Santiago de Pablo protagonista izan zituen hizketaldia moderatu zuen.

Frankismo garaiko idazkera zinematografikoak

Irailak 26 (ostirala), Tabakalera-Z aretoa

Santiago de Pablo (EHUren Historia Garaikideko katedraduna): “Donostia Zinemaldiak rol garrantzitsua jokatu zuen diktaduraren amaieran *Furtivos* eta *El espíritu de la colmena* film sarituekin, besteak beste. Nazioarteko ospea lortu zuten eta erakusleho izan ziren horiek, baina, beste kasu batzuek, *Canciones para después de una guerra* filmak adibidez, agerian uzten dituzte erregimenaren kontraesan propioak; izan ere, irekitzearen alde egiten hasi zen, baina errepresioarekin jarraitzen zuen”.

Nicolás Sesma Landrin (Grenoble-Alpeak Unibertsitateko irakasle titularra): “Oraindik ere ez dugu ikusi Franco handi bat zinemari. Akaso antzezpenik onena Juan Diegok *Dragón Rapido* filmean egindakoa izan daiteke, baina pertsonaia zaila da alderdi zinematografikoan. Aktore batek bere egin behar du, anbiguitasun hori pixka bat erakusteko; izan ere, uzkur agertu ohi da, baina zenbait unetan bazekien energia ateratzen”.

Valeria Camporesi (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Artearen Historia eta Teoriako Saileko Zinemaren Historia eta Teoriako eta Kultura Bisualeko katedraduna eta Espainiako Filmotekaren zuzendaria): “Alde batetik, errekonozimenduaren zinema historikoa dugu, publikoak jada buruan duena baliatu eta are gehiago zehazten duena eta, bestetik, ezagutzaren zinema dugu, kontzeptu horiei aurre egin eta pixka bat harago joaten saiatzen dena. Dikotomia horri hirugarren zinema bat gehituko nioke, ikusle gisa gehien erakartzen nauena: historiari buruzko hausnarketaren zinema”.

Hizketaldiak

Industria



Isabel Vázquezek Cristina Merino, Xabier Zabaleta eta Andrea H. Catalàrekin izandako hizketaldia moderatu zuen.

Serieen jardunaldia: 2000 Efektua. Belaunaldi baten erretratua

Irailak 20 (larunbata), Tabakalera-Z aretoa

Mende-aldaketatik 25 urtera, belaunaldi baten erretratua argi marrazten da. Ikus-entzunezkoek ez dute soilik 2000ko hamarkadaren garaia fidelki irudikatzeko balio izan, baita iruditeria emozional baten eta belaunaldiko pertenezia-sentimendu baten eraikuntzan giltzarri izan ere. Tokikotik nazionalera, 2000ko hamarkadatik gaur egunera arte, industriako profesionalen arteko elkarriketa honek proiektu mota hauen sorkuntza bultzatzen duten gakoak aztertzea eta hauek publiko zabalagoetara eramatean sortzen diren erronka eta aukerak identifikatzea izan zuen helburu.

Cristina Merino (Movistar Plus+en Eduki Originalen exekutiboa): “Jakina, mutil batek egin zezakeen hori, baina Lena Dunham ezin zen zelulitisa zuen emakume gizona izan. Neska batek ezin du hori egin. Bizpahiru kapitulutan, ezereztan joan zen, hori guztia oso azkar ezereztan, oso modu burutsuan eta, gainera, poz handiz. Uste dut bera dela 2000. urteko sortzailearen adibidea, gure buruak ikusteko eta buru buruaz aritzeko moduak aldatzea ekarri duena; “ez dut zertan jardun zuri gustatzen zaizun moduan” horren nolabaiteko askatasunean”.

Xabier Zabaleta (gidoilaria eta ekoizlea): “Uste dut orokorrean plataformek hasieran arbuia egiten dutela nolabait, baina, gero, ikus-entzuleen emaitzek oso ondo funtzionatzen dute. Une honetan Netflixen gehien ikusi den filma *KPop Demon Hunters* da eta pentsatzen dut ikusleak haurrak eta gazteak izango direla. [...] Hemen, zorionez, EITBk apustu handia egiten du publiko horrek euskarazko produktuak kontsumi ditzan eta tematuta gaude hemengo publikoak edukia izatearekin. Egia esan, oso ongi funtzionatzen du”.

Andrea H. Català (ekoizlea): “Suman ez dugu estandarizatuta dagoena nahi izaten, bestelako edukiak bilatzen ditugu, kontatzeko modu berriak eta istorio berriak. Uste dut Sumaren kasuan funtzionatzen duela eta hor kanpoan jar dezaketela Los Javis direlako. Gaurko egunera arte erakutsi digute ekoizten edo zuzentzen dituzten gauza askok funtzionatzen dutela alderdi batzuetan edo guztietan eta egile-ikuspegia (pixka bat edo nahiko) duen zerbait egin dezakezula, *mainstreamera* igaro daitekeena. [...] Horrek guztiak funtzionatzen jarraitzen duen bitartean, gure kasuan, gauza arraroak erosten dizkigute oraindik ere. Baina ez dut uste toki guztietan gertatzen denik. Uste dut gure kasuan burbuila bat dela”.

Hizketaldiak

Industria



LGBTIAQ+ film latinoamerikarrak banatu eta nazioartekotzeri buruzko hizketaldiaren une bat.

LGBTIAQ+ bereizgarria. Latinoamerikako LGBTIAQ+ filmen banaketa eta internazionalizazioa

Irailak 23 (asteartea), San Telmo Museoa – Ekitaldi aretoa

Pilar Toro (Filmineko Marketin eta Komunikazioko zuzendaria): “Manten dezakegun zigilu hori elkar ikusi eta elkar aurkitu ahal izateko eta gure buruak erakutsi ahal izateko, baina ghetto bihurtu gabe; aitzitik, gure errealitateak eta fikzioak beste pertsona batzuegana irits daitezela eta haiek deskubritu ahal izan ditzatela, gainerako balioengatik. [...] Filminen kasuan, zigiluak ez du mugatzen; aitzitik, zu bezalakoak edo guztiz bestelakoak izan daitezkeen pertsonak deskubritzera, haiekin enpatia izatera edo haiek hobeto ulertzea gonbidatzen zaitu”.

Sandro Fiorín (banatzailea): “LGBT gaia duen film mexikar bat, *Nudo Mixteco*, Espainiako ehun zinema-jaialditan baino gehiagotan egon zen. Ikusi zuten pertsonak batzen badituzu, banaketa bat baino gehiago da. Filma zinema-jaialditan ematen bi urte eman ondoren, 15.000 edo 20.000 pertsonak ikusi zuten;artzelona edo Madrilan astebetean ikusiko luketenak baino gehiago da hori”.

Ignacio Juricic (zinema-zuzendaria): “Ona da Txileko zinema-aretoen sareak egiten duen lana aipatzea. Zinema-areto independenteen sarea da, eta iruditzen zait lan hori eredugarria dela. Komunitatearekin eta elkarlanarekin zerikusia duen erantzun bat egon daiteke hor”.



Zinemaldia & Technology ataleko hizketaldia Tabakalera egin zen.

Zinemaldia & Technology: Aatik haratago. Teknologia inklusiboak ikus-entzunezko sektorean

Irailak 25 (osteguna), Tabakalera-Prisma

Anna Giralt (zinemagilea eta ikertzailea): “Dibertsitatea eta inklusioa teknologian hasieratik, diseinuaren unetik erabiltzailera iristen diren arte, ordezkatuta dauden munduaren ikuspegi horiek guztiak dira”.

Selva González (ekoizlea): “Batik bat munduaren iparraldean kontzentratzen den industria bati buruz hitz egiten dugunean —publikoak, askotan, toki guztietan daude—, garrantzitsua da ditugun teknologiek mota askotako materialetarako sarbide demokratikoa eskaintzea”.

Adriana Moscoso (GESAC Egile eta Konpositoreen Sozietateen Europako Taldearen zuzendari nagusia): “Ikuspegi teknikitik, AA sortzailea sormenaren paisaia eraldatzen ari da. Aldi berean, sortzaileek berrikuntzak egiteko tresna oso interesgarriak ematen ditu, eta erronka garrantzitsuak ditu parez pare: ordainsariak eta sortzaileentzako etorkizunerako bizimodua. Bruselan egiten dut lan, Europako egileen sozietateen izenean, eta hango eztabaidagaia da hori, baina baita mundu mailan ere. Ildo horretan, Europa eredu da”.



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Erakusketak



Hlynur Pálmason, irudiaren erdian, erakundeetako arduradunekin batera, bere erakusketa inauguratu zen egunean.

Pálmason

2025/06/27-2025/09/28, Tabakalera-Erakusketa aretoa

Donostia Zinemaldiarekin eta Elías Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan antolatua, Tabakalerak erakusketa bat eskaini zion Hlynur Pálmason zinemagile eta artista islandiarrari, 73. edizioan bi film aurkeztu zituenari: *Ástin sem eftir er / The Love That Remains* (*El amor que permanece*) (Perlak) eta *Jóhanna af Örk / Joan of Arc* (Zabaltegi-Tabakalera). Pálmasonen bi praktika horiek uztartzen dituen lehenengo erakusketa izan da hau, eta artistaren hiru proiektu aurkezten zituen. Lehen *Lament for a Horse* da eta zaldi baten deskonposizio-prozesua erakusten du, Godland (Zabaltegi-Tabakalera Saria).

Bere filmean ere agertu zena. Bigarrena, *One Winter* filma Tabakalerak ekoitzia eta instalazioa da, Pálmasonek metalezko xaflak ebakita eta neguko hilabete luzeetan kotoizko oihalen gainean aire zabalean ipinita sortua. Azkenik *The Beginning and the End* proiektua, iradokitzen duena muturrak, elkarri aurka egin beharrean, kontraesana barne hartzen duen ziklo baten parte direla: mundua finkatzekoa bere mugimendua ikusteko, heriotza behatzekoa bere aldaketak bizitzeko, edo izotzean bilatzekoa izaki mikroskopikoen indarra aurkitzeko.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Erakusketak



Irati Gorostidi Agirretxe, bere erakusketaren proiektzioetako baten aurrean.

Arcoiris 82

2025/09/11-2026/01/06, Tabakalera-2. erakusketa aretoa

Arcoiris 82 erakusketa Irati Gorostidi Agirretxe artista eta zinemagilearen –Ikusmira Berriak proiektuan parte hartu zuenaren– *Aro berria* (2025) fikziozko lehen film luzearen filmazioko material argitaragabea funtsatzen da. Filmak Donostia Zinemaldiko New Directors sailean izan zuen mundu estreinaldia. Filma laurogeiko hamarkadan Ultzaman (Nafarroa) finkatutako Arco Iris komunitatearen inguruko ikerketa- eta sorkuntza-prozesu luze baten amaiera da. Gorostidik ikerketa horretako materiala ekarri du erakusketa-aretoa, eta zinema-narrazioa gaitzen duen eta bizipenaren esparruan kokatzen den esperientzia bat proposatu du.



Guillermo Galoe zuzendaria, bere filmaren errodaletik sortutako erakusketan.

La Cañada: Ikusezinaren geografiak

2025/09/20 – 2025/09/27, Tabakalera-1. solairua

Ciudad sin sueño / Sleepless City, Guillermo Galoek zuzendua eta 2024ko udaberrian Cañada Realean filmatua, erakusketa honen jatorria da. Cannesko zinema-jaialdian mundu-estreinaldia izan eta Donostia Zinemaldiaren Perlak atalean bildu ondoren, filmak irudien eta erresonantzien lurralde bat irekitzen du, hemen forma berrietan hedatzen dena. *La Cañada. Ikusezinaren geografiak* Manuel Rojoren *Begiradak* eta Txema Torresen *Aleluya*-ren zatiak biltzen ditu, filmaketaren garaian sortuak. Pelikularekin estuki lotuta dagoen baina propioa den unibertso bat osatzen dute, esperientzia zabaltzen duen elkarriketa artistiko batean, Marina García Lópezek komisariatua.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Erakusketak



Inauguración de la exposición *Las Hijas del Jazz*.

Las Hijas del Jazz

2025/09/20 – 2025/09/28, Zurriola pasealekua

*Las Hijas del Jazz*ek omenaldia egin zien euren talentu eta ausardiaren medioz zinema-industrian eta haratago bideak ireki zituzten emakumeei. 20ko eta 30eko hamarkadetako Hollywoodeko glamour, haustura estetiko eta emantzipazio-bultzadan inspiratuta, erakusketak Virginia Woolfen, María Zambranoren eta halako figura historikoen espiritua ospatu eta Espainiako emakumezko aktore garaikideen talentuarekin lotzen du.

Erakusketak –Omar Ayyashi argazkilariaren proiektuaren parte denak– Cayetana Guillén Cuervo, Aitana Sánchez-Gijón, Milena Smit, Ana Rujas eta Clara Lago antzezleen erretratuak biltzen ditu, aitzindari haien esentzia gorpuzten dutenak. Formatu handiko 36 argazki biltzen ditu erakusketak. Murgiltze-esperientzia baterako, erretratu bakoitzarekin batera, aktoreek berek interpretatutako audio literario bat dago, QR kodeen bidez eskuratu daitekeena.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Erakusketak



Zinemaldiaren egunetan Arteuparte galerian egin zen erakusketaren irudia.

Arteuparte: 'El 7º será el 1º'

2025/09/05 – 2025/09/30, Arteuparte Gallery

Zazpigarren artearekin loturiko obren erakusketa kolektiboa, iraganeko eszena, pertsonaia eta kolaborazioen bitartez bisualki bidaiatzeko aukera ematen duena.



Inés Barreda eta Yurena Paniagua, Argazkilari Elkartean egin zen beraien erakusketan.

25 urte Zinemaldiarekin

2025/09/17 – 2025/10/15, Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa

Donostilandia aldizkariak eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak Yurena Paniaguak eta Inés Barredak azken 25 urteotan Zinemaldian egindako argazki onenen sorta bat jarri zuten ikusgai.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Audiren arduradunak eta *Antes de las seis* film laburraren sortzaile eta aktoreak.

Emanaldia - Audi Future Stories: Antes de las seis

2025/09/26, Príncipe zinea-aretoa (10. aretoa)

Audi Future Stories, film labur zinematografikoetarako gidioen lehiaketa, Donostiara iritsi zen Aline Lópezek eta Gemma Morcillok –bosgarren edizio honetako irabazleak– sortutako *Antes de las seis* lanarekin. Komedia hau irailaren 26an estreinatu zen Donostiako Príncipe zinema-aretoetan. Estreinaldian izan ziren, besteak beste, Kike Maíllo zinema-zuzendaria –*Audi Future Stories*eko epaimahaikide eta film laburraren zuzendaria– eta Miguel Ángel Muñoz –haren aktore protagonista–, Espainiako zinemako beste hainbat pertsona ezagunez gainera.



José Luis Rebordinos (ezkerrean), *Verano Trippin* filmaren taldearekin.

Emanaldia – Verano Trippin

2025/09/25 – 2025/09/26, Príncipe zinema-aretoa (9. aretoa)

Uda hotza Patagonian. Toni eta Lena lagun banaezinak herriko monotoniatik ihes egin eta mundua esploratzeko ametsa dute. Dirua biltzeko, marihuana saltzen hasiko dira, baina herriko narko Doloresentzat lanean hasten direnean, nazien eta polizia-ustelkeriaren azpimundu ilun batean sartuko dira. Abentura kitzikagarria zirudien hori arrisku- eta traizio-espiral bihurtuko da, nesken xalotasuna hautsiz eta adiskidetasuna arriskuan jarritz. OrcaFilmsek Morena Fernández Quinteros argentinarraren lehen film hau Donostian aurkeztu zuen, Miranda de la Serna eta Zoe Hochbaum protagonista dituen, Lali Espósitoaren partaidetza bereziarekin.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Tamar Novas aktoreak Zinekinen proiektzioa babestu zuen.

Emanaldia - Zinekin

2025/09/2020, Trueba zinema-aretoak (1. aretoa))

Tóxicos / Toxic eta *El buffet libre / Free Buffet* film laburren emanaldia; kalteberatasun-egoeran dauden ikasleek Zaragüeta Zulaica Fundazioaren Zinekin proiektuaren –Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutakoaren– baitan garatuak dira filmak.



Emanaldia - XXXVII. Bideoaldia

2025/09/25, Trueba zinema-aretoak (1. aretoa)

2024/2025 ikasturtean Larrotxene kultur etxean egindako lanen erakustaldia.

- **Atera** (Espainia) / Olatz Beobide (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Berandu** (Espainia) / Lorea Azpeitia (Espainia) - [Film laburra](#)
- **El escondite** (Espainia) / Marta H. Susperregui (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Faustina** (Espainia) / Sergio Rojo (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Izen galduak, inoiz ez ahaztuak** (Espainia) / Josema Agirre (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Kamarada** (Espainia) / Jon Hidalgo (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Maritxu nora zoaz** (Espainia) / Alex Altuna (Espainia) - [Film laburra](#)
- **Olentzerori eskatu nion** (Espainia) / Amaia San Sebastián (Espainia) - [Film laburra](#)

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



As the Water Flows filmaren proiektzioaren aurkezpena.



Ashima filmaren proiektzioaren aurkezpena.

Emanaldia - As the Water Flows

2025/09/21, Príncipe zinema-aretoa (9. aretoa)

Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzeaz gain, Shangaiko zinema-jaialdiak *As the Water Flows* aurkeztu zuen Donostian, Txinako lehiaketaren Asiako talentu berrien sailean estreinaldi onenaren saria irabazi zuen Bian Zhuoren filma, hain zuzen. Emaztea bat-batean hil zitzaionean, Shu Wenek arazoak izan zituen lehengoratzeko. Urtebete geroago, harreman sentimental berri bati ekiteko aukera aztertu zuen, baina alabak ez zeuden ados. Horrek komunikatzeko aukera eman zion, eta Shu Wen iraganean familiatik kanpo egon zela konturatu zen.

Emanaldia - Ashima

2025/09/26, Príncipe zinema-aretoak (9. aretoa)

Ashima (Qiong Liu, 1964) filmaren emanaldia. Formatu panoramikoa eta soinu estereoa izanik koloretan filmatutako lehen film musikal txinatarra da. Shanghai Film Technology Plant Co. Ltd. eta L'Immagine Ritrovata etxeek zaharberritutako bertsioa. Yunnango sani herriaren (yi etniako azpitalde bat) poema narratibo herrikoi baten egokitza pen da film hau, eta bi maitalaren istorio tragikoa kontatzen du.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Universaeren film laburren lehiaketaren sari-ematea.

Emanaldia - Universae Film Lab: SSIFF Short Film Competition

2025/09/25, Príncipe zinema-aretoa (10. aretoa)

Universae Lanbide Heziketako Goi Institutuak Made in Spain saila babesten eta film laburren lehiaketa antolatzen du. Finalisten eta irabazleen emanaldiak irailaren 25ean egin ziren sariak banatzeko ekitaldian.



Itzuleraren muntaketa teatralaren sustapen-irudia.

Antzerkia - Itzulera

2025/09/26, Gazteszena

Dejabu Konpainiaren *Itzulera* obra *road movie* eszeniko, lotsagabe eta psikodelikoa da, antzerkia eta zinema zuzenean fusionatzen dituen. Bizi eta sormen krisian dauden hiru protagonistak, diasporako euskaldunak elkarrizketatzera doaz Mexikora bidaiari, Etxepare Euskal Institutuak emandako beka bati esker. Ustekabeko gertaera batek bidaiaren norabidea erabat aldatuko du eta ikuslea deliriozko abentura batean murgilduko du, non ez diren faltako autoen pertsekuzioak, bidaiari haluzinogenoak eta bizitza konplikatuak dien chihuahua bat. Euskaraz antzeztu zen, gaztelaniarako azpitituluekin.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Lucía Olaciregui, José Luis Rebordinos, Isa Campo, Koldo Zuazua eta Daniel Aguilar, Tokion egindako aurkezpenean.

Emanaldia - Donostia Japonian: SSIFF X Tokioko Cervantes Institutua

2025/10/30, Tokioko nazioarteko zinema-jaialdia

Donostia Zinemaldiak eta Tokioko Cervantes Institutuak Donostia Japonian: SSIFF X Tokioko Cervantes Institutua programa martxan jarri sendotu dute euren kooperazioa; Japoniako hiriburuan zinema-emanaldiak gauzatzea eta Tokioko Nazioarteko zinema-jaialdian elkarrekiko partaidetza bat barne hartu zituen ekimen horrek. Lankidetzan 2024an hasi zen, eta aurten *Soy Nevenka* filmaren aurkezpenarekin zabaldu da. Koldo Zuazua eta Isa Campo –*Soy Nevenka* / *I Am Nevenka* filmaren ekoizle eta idazlea, hurrenez hurren– Japonian egon ziren, ikus-entzuleekin egindako hainbat topaketatan parte hartzeko.

Halaber, *Donostia Japonian: jaialdi baten historia* izeneko aurkezpen berezia egin zen, Jose Luis Rebordinos, Lucía Olaciregui, Isa Campo, Koldo Zuazua eta Daniel Aguilar Tokioko Cervantes Institutuan bildu zituen. Saioa publikoarekiko elkarriketa ireki gisa sortu zen, eta Donostia Zinemaldiaren ibilbidea eskaini zuen, baita hark Espainiako zinemaren sustapenean izandako eginkizuna eta Japoniarekiko harreman historikoa ere.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Gipuzkoa Coopera ekimeneko tailer bat.

Ikus-entzunezko tailerrak – Gipuzkoa Coopera Kolonbian eta Argentinan

2025eko martxoa-abendua

2017az geroztik, Donostia Zinemaldiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean dihardute Gipuzkoa Coopera lankidetzeta-programa garatzen. Programa horren barruan, Zinemaldiak ikus-entzunezko tailerrak antolatzen ditu Latinoamerikako eskoletan, bazterketa-arriskuan dauden ikasleekin. Ione Hernández zinemagileak, Zinemaldiko Hautespen Batzordeko kideak, proiektua zuzentzen du eta zuzendaritza- eta gidoi-tailerrak koordinatzen ditu, baita gainerako diziplinetako profesionalen lantaldea ere: argazkilaritza, soinua, muntaia eta arte zuzendaritza.

Aurrez aurreko tailerrak irailean egin ziren Carrasquilla Integrado ikastetxean (Quibdó, Kolonbia) eta urrian Mar del Platako (Argentina) 37. Eskolan.

Bi ikastetxeetan 40 ikasleko taldeak osatu ziren, eta, kasu bakoitzean, bi film labur egin zituzten hasieratik bukaerara. Aurrez aurreko tailerrez gain, urte osoan zehar online tutoretzak ere egin dira, proiektuari jarraipena emateko eta edukiak aberasteko.

Tailerren finantzaketa Donostia Zinemaldiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago; izan ere, beharrezko materiala eman dute –kamerak, lenteak, argiztapen eta soinu tresnak, grabagailuak, mikrofonoak...–, ikasleak ikus-entzunezko lan bat sortzeko orduan autonomoak izan daitezen.

Erakusketak eta beste ekintza batzuk

Beste ekintza batzuk



Atzean, ezkerretik eskuinera, Miriam Porté, José Luis Rebordinos, Asier Etxeandia, Avelina Prat, Loreto Mauleón, Lucía Olaciregui eta Asier Altuna. Aurrean, Celia Rico, Manuel Gómez Pereira, Juan Moreno, Eva Libertad, Koldo Zuazua eta Juan Antonio Vigar.

Emanaldiak - MASS – (Espainiako zinemaren zikloa Uruguain eta Argentinan)

2025/11/24 - 2025/11/30

Montevideok eta Buenos Airesek MASSen bigarren edizioa hartu zuten azaroaren 24tik 30era, hau da, Donostia Zinemaldian eta Málagako zinema-jaialdian parte hartu zuten sei film espainiarren zikloarena. OrcaFilmsek ekoitzia, ekimenak Espainiako Kultura Ministerioaren laguntza jaso zuen, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren (ICAA) eta Acción Cultural Española (AC/E) bidez, kultura nazioartekotzeko ildo estrategikoaren bidez. Montevideon MASSek Uruguaiako Zinema eta Ikus-entzunezkoen Agentziaren (ACAU), Zinematokaren eta Uruguaiako Zinema Eskolaren (ECU) babesa izan zuen; Buenos Airesen, berriz, Buenos Aires Hiriko Gobernuaren laguntza izan zuen, baita Argentinako Aireportuen eta Argentinako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren babesa ere.

Donostia Zinemaldiaren eta Málagako zinema-jaialdiko zuzendariez gain, Espainiako ordezkaritza bat joan zen Montevideo eta Buenos Aires hirietara filmak babestera. Donostia Zinemaldiak Sail Ofizialeko bi film eraman zituen (*Los Tigres* eta *Karme*), baita RTVE Galetako *La cena / The Dinner* filma ere. Málagako zinema-jaialdiaren programazioari dagokionez, honako hauek aurkeztu ziren: *Sorda / Deaf*, *La buena letra / The Good Manners* eta *Una quinta portuguesa / The Portuguese House*.

FESTIVAL DE
MÁLAGA



ACADEMIA
DE ARTES
Y CIENCIAS
CINEMATOGRAFICAS
DE LA ARGENTINA

COMPLEJO
TEATRAL
DE BUENOS
AIRES

OrcaFilms.



AC/E
ACCION CULTURAL
ESPAÑOLA



SANTIAGO
PRESENTADO POR
DILESTRO



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Z365, urte osoko Zinemaldia

Z365, urte osoko Zinemaldia

365 eguneko zinemaldi bat



Maialen Beloki Donostia Zinemaldiaren zuzendariordea, Kabian parte hartzen.

2020an, zinema-lehiaketen nazioarteko zirkuituan gertatzen ari zen eraldaketa sakona ikusirik, Donostia Zinemaldia gaur egungo dardara berriak detektatzen saiatu zen, zinema-jaialdiak norantz mugitzen ari ziren, zein ziren horien ihesbideak, zerk zirudien iragankorra zela eta zerk, aldiz, iraunkorra.

Gogoeta horren ondorioz sortu zen Z365, urte osoko Zinemaldiaren kontzeptua, aurtan –2025ean– bost urte bete dituen.

2020an, Tabakalerako –kultura garaikidearen zentro eta Zinemaldiaren bulegoak hartzen dituen guneko– ekosistemako zinema-arloak hazteko ahalmen handia zuela ikusten hasi ziren: munduan ez dago beste lekurik non arte eta kultura garaikideko zentro baten kultura-proiektu batek (Tabakalerako kultura-proiektua), pentsamendu eta ikerketa zinematografikoen eskola batek (Elías Querejeta Zine Eskola), eskualde-filmategi batek (Euskadiko Filmategia) eta nazioarteko zinema-jaialdi batek (Donostia Zinemaldia) proiektu partekatuetan bat egiten duten.

Diagnostiko horretatik abiatuta, eta instituzio-bazkideak kontuan hartuta, proiektu partekatu batzuk ehundu ziren, prestakuntza emateko eta talentu berriak bilatzeko jomugen (Zinemaldiak Elías Querejeta Zine Eskolan edo Nest sailean –zinema-ikasleen nazioarteko topaketan– parte hartzea), proiektu zinematografikoen garapenean laguntzeko helburuen (Ikusmira Berriak egoitza-programaren, Kabia *networking*-jardueraren edo Tabakalerako Noka Mentoring eta 2de0 Serieak ekimenen lankidetzak), zinemari eta jaialdiei buruzko ikerketa-xedeen (Artxiboaren makro proiektua José Ángel Herrero-Velarde Ikerketa Bekekin) eta zabalkunde-jomugen (Zinemaldia Plusen urteko programazioa eta Zinemagileen Elkarriketak) arabera multzokatuak.

2025ean Z365en bosgarren urteurrena da, urte bereziki garrantzitsua izanik, hainbat arrazoiengatik, arlo honetan bildutako bi programarako: Ikusmira Berriak eta Nest.

Z365, urte osoko Zinemaldia

Ikusmira Berriak



Ezkerrean, Jaume Claret Muxart eta Jaione Camborda, Maialen Franco, Carlos Muguiro, Maialen Beloki eta Edurne Ormazabalekin batera.

Ikusmira Berriak ekimenaren hamargarren urteurrena ospatu ondoren, Zinemaldian zehar liburu berezi bat argitaratu zen, urteetan zehar egonaldi-programako kide izan diren zinemagile askoren ahotsak eta begiradak biltzen dituen. Argitalpen horrek, hamarkada bateko babesa ospatzeaz gainera, programatik igarotako filmen eraginaren testigantza ere ematen du.

2025ean zehar, gainera, Zinemaldiak, Zinemaldia + Plusen bitartez, egonaldi-programa horretan garatzen hasi ziren, hamar urteotan nazioarteko zinemaldi-zirkuitu zabala egin duten, eta aintzatespenak lortu eta egileen ibilbideak sendotu dituzten filmei bakarrik eskaini nahi izan die arreta.

Etengabeko laguntza-konpromiso horren ondorioz, Zinemaldiak berretsi egiten du proiektu horien aldeko apustua, eta horren erakusgarri dira edizio honetako film hauek: *Aro Berria*, Irati Gorostidi Agirretxerena (IB 2022), New Directorsen; *La misteriosa mirada del flamenco*, Diego Céspedesena (Nest 2018, IB 2020), Horizontes Latinosen, Cannesko Premio Un Certain Regard saria beretu ondoren; *Hiedra*, Ana Cristina Barragánena (EQZE 2020-2021, IB 2022); Horizontes Latinosen ere berau, Veneziako Orizzonti sailean izan eta gidoi onenaren saria jaso ondoren, eta *Estrany riu*, Jaume Claret Muxartena (EQZE 2018-2019, Nest 2020, IB 2022), Zabaltegi- Tabakaleran, Veneziatik igaro eta Ekarpen Artistiko Onenaren Bisato d'Oro saria irabazi eta gero.

Z365, urte osoko Zinemaldia

Nest



Aurten Nesten bildutako ikasleen familia-argazkia.

Hogeita laugarren edizioan, Nest sailak (sailaren izenean bertan dago, hain justu, sailaren jatorria) mundu osoko zinema-ikasleen 14 film labur aurkeztu zituen, aurten ere zinema garaikide berrienaren orainaldiko erradiografia bat egiteko. Topaketak marka berri bat hautsi du aurten, 473 izen-emate jaso baititu, eta hamar herrialdetatik baino gehiagotatik etorritako eta zinemaren bidez konektatutako gazteentzat ikus-entzuleekin eta industriarekin egin den lehen topaketetako bat izan zen.

Nest guneak etorkizuneko zinema horretarako abiapuntu bat da, eta bere memoria ikasle gisa euren lehen lanak Donostian proiektatuta ikusi zituzten hainbat zinegile ospetsuk (Kiro Russo, Isabel Lambert, Léa Mysius, Laura Wendel, etab.) idazten dute. Zinemaldiaren 73. edizioan, Jaime Claret Muxart, Diego Céspedes, Paula Tomás Marques, Hanxiong Bo eta Roxana Stroe zinemagileek beren film eta proiektu berriak aurkeztu zituzten lehiaketako hainbat sailetan.

Prestakuntzarekin lotuta, Gia Coppolarekin, Claire Denisekin, Jaime Claret Muxartekin eta José Luis Guerin eta Jonás Trueba tandemarekin egin ziren Hizketaldiak jaso zituen Nestek aurten. Horietan, zinema-ikasleek lan-prozesuen eta sorkuntza-moduen inguruko hausnarketak trukatzeko aukera izan zuten.

2026 ikasturteari begira, eta ikasgela osatzen duten hormetara itzuliz, Donostia Zinemaldiak, Elías Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan, zinemaren historiako ibilbide bat proposatuko du zazpi filmetan zehar, zinemaren eta haren transmisioaren arteko harremanaren bidez, Zinemaldia + Plus urteko fokuari bidez.

Z365, urte osoko Zinemaldia

Zinemaldia + Plus



Mikel Gurrea *Suro*, Ikusmira Berriak barruan egindako proiektua, aurkeztu zuen Zinemaldia + Plus atalaren proiektio batean, Tabakalera belaunaldiaren ospakizunean programatutakoan.

Donostia Zinemaldiak urte osoan zehar programatzen du Tabakalerako pantaila publiko partekatuan, Zinemaldia + Plus programaren bidez. Aurten, urteurrena dela-eta, ***Ikusmira Berriak 10 urte*** atzerabegirakoak hamar urteko zinema egonaldiak aztertzea eta ospatzea proposatu du, programaren esparruan garatutako 21 filmen bidez.

Film horiek dagoeneko amaitu eta estreinatu dira nazioarteko hainbat zinema-jaialditan, hala nola Donostian, Cannesen, Venezian, Berlinale, Sundancen, Locarnon, Viennalen, Márgenesen, Torinon edo Mar del Platan.



Z365, urte osoko Zinemaldia

Zinemaldia + Plus

Urtarrilak 25

- **El extraño / The Stranger** (Txile, 2016) / Pablo Álvarez (Txile) - Film laburra
- **El gran movimiento / The Great Movement** (Bolivia - Frantzia, 2021) / Kiro Russo (Bolivia)

Otsailak 1

- **Calipatria** (Austria, 2017) / Leo Calice (Austria) eta Gerhard Tremml (Austria) - Film laburra
- **Eles transportan a morte / They Carry Death** (Espainia - Kolonia, 2021) / Helena Girón (Espainia) eta Samuel Delgado (Espainia)

Otsailak 8

- **Gwendolyn Green** (AEB, 2017) / Tamyka Smith (AEB) - Film laburra
- **All Dirt Roads Taste of Salt** (AEB, 2023) / Raven Jackson (AEB)

Otsailak 15

- **Trote / Trot** (Espainia- Lituania, 2018) / Xacio Baño (Espainia)

Martxoak 8

- **Las letras de Jordi / Jordi's Letters** (Espainia, 2019) / Maider Fernández Iriarte (Espainia)

Apirilak 26

- **Chupacabra** (Errusia, 2020) / Grigory Kolomytsev (Errusia)

Maiatzak 10

- **Stephanie** (Belgika, 2020) / Leonardo van Dijn (Belgika) - Film laburra
- **Creatura** (Espainia, 2023) / Elena Martín Gimeno (Espainia)

Maiatzak 24

- **Jo ta ke / Non-stop** (Espainia, 2020) / Aitziber Olaskoaga (Espainia) - Film ertaina

Ekainak 7

- **Fantasía** (Espainia, 2021) / Aitor Merino (Espainia)

Ekainak 13

- **Suro** (Espainia, 2022) / Mikel Gurrea (Espainia)

Ekainak 14

- **O corno / The Rye Horn** (Espainia - Portugal - Belgika, 2023) / Jaione Camborda (Espainia)

Urriak 4

- **Antier noche / Nights Gone By** (Suitza - Espainia, 2023) / Alberto Martín Menacho (Espainia)

Urriak 11

- **Pornomelancolía / Pornomelancholia** (Argentina - Brasil - Frantzia - Mexiko, 2022) / Manuel Abramovich (Argentina)

Azaroak 1

- **Dormir de olhos abertos / Sleep With Your Eyes Open** (Brasil - Argentina - Taiwan - Alemania, 2024) / Nele Wohlatz (Alemania)

Azaroak 22

- **El agua / The Water** (Suitza - Espainia - Frantzia, 2022) / Elena López Riera (Espainia)

Abenduak 11

- **Ulysses** (Japonia - Espainia, 2024) / Hikaru Uwagawa (Japonia)

Abenduak 18

- **Monólogo colectivo / Collective Monologue** (Argentina, 2024) / Jessica Sarah Rinland (Argentina)

Bestalde, Zinemaldia + Plusek aurtengo edizioko Donostia Sarien filmografiari lotutako ohiko emanaldiak ere programatu zituen irailean.

Irailak 5. Donostia Saria: Esther García

- **Relatos salvajes / Wild Tales** (Argentina - Espainia, 2024) / Damián Sziffrón (Argentina)

Irailak 12. Donostia Saria: Jennifer Lawrence

- **Winter's Bone** (AEB, 2010) / Debra Granik (AEB)

Z365, urte osoko Zinemaldia

Artxiboa



Asier Aranzubia, Zigor Etxebeste eta Paula Arantzazu Ruiz aukeratu zituzten José Ángel Herrero-Velarde bekari hirugarren edizioan.

2023ko urtarrilean abiatu zen Donostia Zinemaldiaren artxibo historikorako proiektuaren fase berria. Artxiboa webguneak 70 urte baino gehiagoko historia biltzen du eta azken lau urteotan egindako kontserbazio-, katalogazio- eta digitalizazio-lanak egin ondoren, jada errealitatea da eta, historian lehen aldiz, guneak ateak ireki zituen aurrez aurreko kontsultarako, berme profesional guztiak emanez. Lehiaketaren iraganaren inguruko azterketa eta pentsamendua suspertzeko eta aberasteko asmoz, Artxiboak José Ángel Herrero-Velarde ikerketa-bekak jarri zituen martxan eta egindako bi edizioetan bederatzi ikerketa akademiko bildu ditu, Zinemaldiaren historiari buruzko begirada, ezagutza eta gogoeta berriak elikatzen dituztenak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak sustatzen ditu bekak, eta Donostia Zinemaldiak eta Elias Querejeta Zine Eskolak antolatzen dituzte.

Entzun **Zinemaldia Podcast**-en #33 zenbakia eta aurreko beste hainbat kapitulu; Donostia Zinemaldian gertatzen diren zenbait gauzaren soinu-inbentarioa da Zinemaldia Podcast.

Z365, urte osoko Zinemaldia

Zinemagileen arteko elkarrizketak



Programa honek film bat produzitu eta egiteko prozesuan ikusten ez diren alderdiak hobeto ulertzeko gakoak eman nahi ditu. *Zinemagileen arteko elkarrizketak* ekimenak sorkuntza zinatografikoaren barruko historiaren berri ematen du elkarrizketa-formatu arin batean. Elkarrizketa guztien ideia nagusia da zinema lanbide kolektibo bat dela. Zinemagile bakoitzarekin batera harekin hainbat arlotan (muntaketa, interpretazioa, gidoia, ekoizpena, etab.) lankidetzan aritu ohi den pertsona bat egongo da, edota beste zinemagile bat, belaunaldi berekoa dena edo abiapuntu edo kezka formal edo tematiko berberak dituen.

Zinemagilearen begirada bakarra deszentralizatzeaz gain, programaren xedea honakoa da, proiektu baten garapenaosatzen duten lanbide tradizionalenak ezagutzera ematea eta, ondorioz, zinema modu kritikoan ikusten eta irakurtzen ikastea, horren inguruabarrak norabide guztietan aldarazten ari diren testuiguru batean.

Saio guztiak Koldo Mitxelena Kulturunearen Santa Teresa Komentuko ekitaldi aretoan egin dira.

Z365, urte osoko Zinemaldia

Zinemagileen arteko elkarrizketak

Este ha sido el programa de su cuarta temporada:



Ez-fikzioa ekoiztea: **Maria Elorza eta Marian Fernández** (2025/01/14).



Egokitzapen literarioak: **Helena Taberna eta Isaac Rosa** (2025/02/11).



Egokitzapen literarioak: **Paula Ortiz eta Javier García Arredondo** (2025/03/7).



Interpreteen zuzendaritza: **Celia Rico eta María Vázquez** (2025/03/25).



Autofikzio bat gorpuztea: **Javier Giner eta Oriol Pla** (2025/04/10).



Arte-zuzendaritza eta produkzio-diseinua: **Pedro Martín-Calero eta José Tirado** (2025/05/15).



Zinemagile berriak eta beste diziplina batzu: **Marta Nieto eta Antón Álvarez (C. Tangana)** (2025/05/29).



Ekoizpena eta musika: **Esther García eta Alberto Iglesias** (2025/06/17).



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

73. edizioko 73 irudi

OHARRA: Memoria honetako argazkien egileak honako hauek izan dira: Álex Abril, Ibai Arrieta, Marco Barada, Pablo Cifuentes, Jorge Fuembuena, Gari Garaialde, Pablo Gómez, Nora Jáuregui, Iñaki Luis, Mikel Martínez eta Ulises Proust.



Inauguraziotik amaierara, Donostia Zinemaldiaren 73. edizioa aldarrikapen baketsu batek markatu zuen: palestinar herriaren aldeko eta Israel Gazan egiten ari den genozidioaren kontrako aldarrikapena egin zen zinema-aretoen barruan eta horietatik kanpo. Zinemaldiak adierazpen bat egin zuen ildo horretan, eta bertan Hamasen indarkeria ere gaitzetsi eta bahituen askatasuna eskatu zuen.



“Sinesten dut kulturaren boterean. Zinema amets egiteko etxea eta, gainera, aldarrikatzeko bozgorailua da, zalantzarik gabe. Filmak mundua edertu eta hobetzeko gure tresnak dira”, adierazi zuen Esther Garcíak, Donostia saria jaso duen lehen ekoizleak.



Santiago Mitre eta Agustina Llámbi Campbello ekoizleak eta Carla Peterson aktorea alboan zituela, Daniel Hendlerrek Sail Ofiziala inauguratu zuen *27 noches / 27 Nights* filmarekin. Filmaren protagonistak "aukeratzen du familian, zirkulu intimo nagusi gisa, ezarritako muga zeharkatzea eta zirkulu intimo horretan kokatzen ditu berak gertukoek eta konplizeen sentitzen dituenak".



Jonatan Etzler, eskuinean, *Bad Apples* New Directors saileko inaugurazio-filmeko taldekide batzuekin: "Komedia deserosoa denari aurre egiteko modu bat da. Zuek barre egitea nahi dut, baina baita zuen buruak zalantzan jartzea ere: Beste batzuen sufrimenduaren konplizeak al gara? Horra hor utzi nahi dudun hausnarketa".



"Pertsonaietako bakoitzari gizatasun pixka bat geruzak ematen saiatzen ahalegindu ginen", gogoratu du Dominga Sotomayor zuzendariak, Rocío Jadue ekoizlearekin eta María Paz Grandjean aktorearekin batera. *Limpia* aurkeztu zuten, Horizontes Latinos saila inauguratu zuen filma.



Daniel Blaufuks eta Ana Moreira, Sergio Oksman zuzendariarekin (eskuinean) batera. Sergiok *Una película de miedo* / *A Scary Movie* zuzendu du, Zabaltegi - Tabakalera saileko inaugurazio-filma: "Film honetan aitaren beldurra eta zinemagilearen beldurra elkartzen dira".



Michèle Pétin eta Laurent Pétin ekoizleek Zoey Deutch aktorearekin eta Richard Linklater zuzendariarekin batera egon ziren. Zuzenari horrek *Nouvelle Vague* zuzendu zuen, Perlak saileko inaugurazio-filma: "Ez da film erromantiko bat, baina badu amodio-gutunaren kutsu bat nire aldetik. Ezin dut maite ez ditudan gauzei buruzko filmik egin".



Paul Dano aktorea, barrez, Olivier Assayasen ondoan. Olivierrek *Le mage du Kremlin / The Wizard of the Kremlin* filma zuzendu du (Perlak): "Totalitarismo sobietarra modu progresiboan berreraiki da".



Inge Mendioroz, *Lurdes Iriondo*, ez gera alferrik pasako dokumentalaren zuzendaria (Zinemira), Ritxi Lizartza ekoizlearekin, Idoia Garzes gidolariarekin eta Patxika Erramouzpe abeslariarekin batera. Espero dute dokumentala Iriondoren irudiaren "errekonozimendu nazionalerako lehen urratsa" izatea.



Las delicias del jardín / The Delights of the Garden filmaren (Made in Spain) taldea, Fernando Colomo zuzendariarekin batera: "Filmatzen jarraituko dut bi arrazoiengatik: bat, oso garrantzitsua, izugarri gustatzen zaidalako eta, bestea, teorikoki erretiroa hartu badut ere alokairua ordaintzeko lan egiten jarraitu behar dudalako".



Carlos F. Herederok *Furtivos / Poachers* filmaren (Klasikoak) zaharberritzea aurkeztu zuen. José Luis Borauren film horrek Donostia Zinemaldiaren Urrezko Maskorra irabazi zuen orain dela 50 urte: "Gure adimena astintzeko eta edozein begirada moldakorren zantzu interpelatzeko gaitasun bertsua du filmak".



Milaka ume izan ziren Hayao Miyazakiren *Totoro auzokidea* (1988) filmaren proiektzioetan, Ikastetxeak Belodromoan atalekoetan. Aurtan, basoaren misteriorik eder eta ezezagunak esploratu ahal izan zituzten Nahia Gartzia Bengoetxea biologoaren eta Pepper robotaren laguntzarekin.



Jules Waringo, Leonis eta Teodor Pinero Müller eta Eye Haïdara, *Six jours ce printemps-là / Six Days in Spring* filmaren (Sail Ofiziala) protagonistak. Film horrengatik jaso zituen Joachim Lafosse zuzendariak Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra eta Gidoi Onenaren Saria: “Guk, behartuta, ezkutalekutat hartzen ditugun egoeren laztura gogoratzen du filmak”.



“Maite dut gizakiaren soinua. Oso gustuko dut pertsonaia edo aktore batek bera baino handiagoa den zerbait esan eta bere burua harritzea”, dio Arnaud Desplechin zuzendariak. *Deux pianos / Two Pianos* filmaren (Sail Ofiziala) prentsaurrekora doa Nadia Tereszkiewicz, Hippolyte Girardot eta François Civil aktoreekin batera.



Los Tigres filmak (Sail Ofiziala) urpekaritza profesionalaren mundu "arriskutsu eta ezezaguna" du eszenatoki, baina, Alberto Rodríguez zuzendariaren aburuz, muina "bi anai-arrebaren arteko drama da" (Antonio de la Torre eta Bárbara Lennie dira aktoreak). Film horrengatik, Argazki Onenaren Epaimahaiaren Saria jaso zuen Pau Estevek.



Ryuya Wakaba aktoreak, Junji Sakamoto zuzendariak eta Shinya Tabeik (Tabei Junko Foundation) *Teppen no mukou ni anata ga iru / Climbing for Life* (Sail Ofiziala–Emanaldi Bereziak) aurkeztu zuten, 1975ean Everest mendiko gailurra zapaldu zuen lehen emakumea bihurtu zen Junko Tabeiren inguruko filma.



“Arteak komunikatzeko moduak aurkitzen lagun dezake. Aurrez zehaztutako bideari jarraitu partez sortzailea izatea askatzen zaituen erresistentzia-ekintza bat da”, esan zuen Juliette Binochek. *In-I In Motion* zuzendu duen lehen filma estreinatu zuen (Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak).



Agnieszka Podsiadlik eta Denis Lavant aktoreak John Skoog *Värn / Redoubt* filmaren (New Directors) zuzendariarekin batera: “Irudiari hitz egiten uzten dion, dena ozen esaten ez duen zinemaren eragin handia du filmak. Emozioak elkarriketatetik baino gehiago azaletik igarotzea nahi nuen”.



Tomasín Padrónek, *La lucha / Dance of the Living* filmaren (New Directors) protagonistak, Kanariar borrokaren erakustaldi batean parte hartu zuen José Alayónen filmaren estreinaldia aitzakia hartuta: "Borrokatzan erakutsi behar genien aktoreak ez, antzezten erakutsi behar genien borrokalariak nahi genituen".



"Maitagarrien ipuinak, mitologia eta folklorea gustatzen zaizkit. Errealismo soziala bezain latzak izan daitezke", esan du Harris Dickinson aktoreak, Scott O'Donnell eta Archie Pearch ekoizleak aldamenean dituela. *Urchin* Harrisek zuzendu duen lehen filmaren (Zabaltegi - Tabakalera) ekoizleak dira Scott eta Archie.



Alex Russell, *Lurker* filmaren (Zabaltegi - Tabakalera) zuzendaria: "Film askok jorratzen dute beltzarga beltzaren irudia, baina nortasun indibidual ilun bat argitzen amaitzen dute. Hona nire galdera: Ez bada gai indibiduala baizik eta soziala? Sare sozialak badira gure benetako beltzarga beltza?".



"Zineman aritu ez banintz, ezingo nintzen naizena izan eta aita kaskarragoa izango nintzen", esan du Joachim Trier *Affeksjonverdi / Sentimental Value* filmaren (Perlak) zuzendariak, Stellan Skarsgård eta Renate Reinsve aktorea eta Aria Ekerhovd ekoizlea ondoan zituela.



Irudiaren erdialdean, Avelina Prat zuzendaria eta Maria de Medeiros aktorea, *Una quinta portuguesa / The Portuguese House* filmaren (Made in Spain) taldekide batzuekin batera.



Mar Coll eta Jon Garaño zinemagileak Eduard Fernández aktorearekin batera izan ziren Espainiako Zinematografia saria emateko ekitaldian: "Askotariko pertsonaiak eginez eta eginez, pertsonak, mundua eta, azkenik, neure burua gero eta gehiago ulertzen joan naiz; beraz, bidaia itxi egiten da".



Belodromoan egin da aurten ere Kontzertua & Proiektzioa, Euskadiko Orkestrak, SGAE fundazioak eta Donostia Zinemaldiak eskainia.



"Filma indarkeria kolonialaren metafora bat dela esatea konplikatu da, eman baitezake iraganeko zerbait kontatzen ari dela, baina oraindik ere badaude halako tokiak", esan du Claire Denis zinemagileak (eskuinean) *Le cri des gardes / The Fence* filmaren (Sail Ofiziala) taldekide hauekin batera: Isaach De Bankolé, Mia McKenna-Bruce eta Tom Blyth.



Louis Garrel eta Angelina Jolie aktoreen atzean doa Alice Winocour *Couture* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendaria: “Emakume horien bizitzan zati bat josi nahi nuen, haiekin konektatu eta esan: “Ez zaudete bakarrik”. Indartsuak izan gaitezke asko bagara eta elkartzen bagara”.



“Film batek ezusteko ideiak transmiti diezazkizuke, eta urrun sentitzen zenuen zerbait gertukoa dela sentiarazi”, baieztatu dute Jose Mari Goenagak eta Aitor Arregik (zutik, erdian), *Maspalomas* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendariek. Filmaren protagonista Jose Ramon Soroizek Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuen ex aequo.



Irati Gorostidi Agirretxek Kutxabank-New Directors sariaren aipamen berezi bat lortu zuen *Aro berria* bere lehen film luzearekin. Espainiako trantsizioaren garaian “alternatibak” bilatzen hasi ziren eta “gizartean modu koherente, berdintasunezko eta utopiko batean nola bizi” imajinatu zuten gazte batzuei buruzkoa da.



“Asko interesatzen zitzaidan akatsak zituen baina bihozbera den pertsonaia bat erakustea. Jendeak horrekin konektatzen du. Akatsez barre egitea akatsak sendatzeko modua ere bada”, adierazi du Simón Mesa Soto zuzendariak. Manuel Ruiz Montealegrearekin eta Ubeimar Ríosekin eserita dago, Horizontes Make & Mark saria irabazi duen *Un poeta / A Poet* filmaren ekoizlearekin eta protagonistarekin, hurrenez hurren.



Jafar Panahi, *Un simple accident / It Was Just an Accident* filmaren (Perlak) egilea: “Ez dago bakarrik sentitzea baino pena mingarriagorik, beraz, pozgarria da ikustea beste zuzendari batzuek, beste herrialde batzuetan, beraien atsekabe soziala adierazteko tresna gisa erabiltzen dutela zinema”.



Kleber Mendonça Filho zuzendaria eta Emilie Lesclaux ekoizlea, euripean, *O agente secreto / The Secret Agent* filmaren (Perlak) aurkezpenarako bidean: “Uste dut oraintxe bertan Brasil bere buruari ezarri dion nolabaiteko amnesia bizitzen ari dela”.



“Irakurketa literalak egin ahal izango dira, baina zinema gai da oso gauza baliotsuak gogora ekartzeko”, adierazi du Alauda Ruiz de Azúak (hirugarrena ezkerretik), Urrezko Maskorra irabazi duen *Los domingos / Sundays* (Sail Ofiziala) filmaren zuzendariak. Sari horrez gain, hauek ere lortu ditu: Irizar, Fipresci, Feroz Zinemaldia 2025 eta Signis.



Agnieszka Holland zinemagilea alfonbra gorrian, *Franz* (*Franz Kafka*) filmaren (Sail Ofiziala) taldekideekin batera: “*Biopicei* buruz gustatzen ez zaidana da istorioaren energia gehiena informazio guztia dramatizatzean zentratzen dela. Guk nahiago dugu pertsonaiaren muina bilatu”.



Olmo Omerzu, *Ungrateful Beings* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendaria, gezurraren gaia hizpide duen film horren taldekideekin batera: “Kasu askotan, gezurrek pertsonaien arazoak konpontzen dituzte, eta ez dituzte zailtzen, zineman gertatu ohi den bezala”.



Marian Fernández ekoizlea antzokira ateratzen Asier Altuna *Karme* filmaren (Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak) zuzendariarekin batera: “Istorio unibertsala da eta, aldi berean, oso gurea. Hori ere bada erakargarria. Askok zaindu ditugu xehetasunak eta uste dugu edonon ulertuko dela”.



Arrate Velasco eta Carlos Muguiro, Elías Quereja Zine Eskolako kudeatzailea eta zuzendari akademikoa, hurrenez hurren, Paula Tomás Marques EQZEko ikasle ohiarekin batera; Paulak *Duas vezes João Liberada* / *Two Times João Liberada* filma (Zabaltegi - Tabakalera) zuzendu du: “Historia queerri buruz ikertzea nire burua legitimotzat hartzeko modu bat zen”.



François Ozon zuzendaria, Rebecca Marder eta Benjamin Voisin *L'étranger* / *The Stranger* filmeko (Perlak) protagonistekin batera: “Enpatiarik ezak definitu egiten gaitu, bai. Gaur egun emoziotik babesteko nolabaiteko joera ikusten dut; hori, akaso, pairatzen dugun irudi-bonbardaketa etengabearen kontrako babes-mekanismo bat da”.



Made in Spain sailean estreinatu zen Sara Sálamoren *En silencio / Silent Struggle* lehen filma, Isco Alarcón futbolariaren lesioa hizpide duena: "Kirol-dokumentalek ikuspegi testosteronikoa izan ohi dute, baina nik nahiago izan dut ikuspegi femeninoa izan eta galdera humanistak egin".



Nacha, *Vestida de azul / Dressed in Blue* filmaren protagonistetako bat, Antonio Giménez-Ricoren filmaren proiektzioan izan zen. Klasikoak atalean berreskuratu da 1983an Donostia Zinemaldian estreinatu zen film hori.



“Belénen abokatua haserretik borrokatu izan balitz, ez zukeen lortuko hainbeste jende batzea”, uste du Dolores Fonzi *Belén* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendariak. Selfiea ateratzen ari da filmeko beste parte-hartzaileekin batera: Leticia Cristi, Camila Plaate (Taldeko Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra), Julieta Cardinali eta Laura Paredes.



SAI / SAI: *Disaster* (Sail Ofiziala) filmaren egileak diren Yutaro Seki eta Kentaro Hirase zinemagileek ikus-entzuleei agurtu zieten emanaldiaren amaieran; filmeko protagonistak “ez serieko hiltzaile baten moduan, baizik eta hondamendi natural baten moduan” antzezteko agindua zuen.



Las corrientes / *The Currents* filmeko (Sail Ofiziala) zuzendari Milagros Mumenthaler, Esteban Bigliardi, Isabel Aimé González Sola, Patricia Mouzo eta Jazmín Carballo aktoreak alboan dituela: “Ez da thriller bat, baina filmak tentsio horri eutsi nahi dio; horrela, ikusleek ez dakite nondik dioan”.



Alba Floresek, *Flores para Antonio* filmaren (Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak) ekoizle sortzaile eta protagonistak, publikoaren txaloak jasotzen ditu Rosario eta Lolita izebak alboan dituela, bai eta Elena Molina eta Isaki Lacuesta ere, hots, Antonio Floresen “mina arindu eta historia suspertu” nahi duen ez fikzioaren zuzendarikideak.



"Aunque haya pasado tiempo desde que tuve quince, conecto muy fácilmente con las emociones asociadas a ese periodo: son experiencias que no se olvidan", explica Emilie Thalund junto a Marie Helweg Augustsen y Joachim Fjelstrup, protagonistas de *Vaegtloes / Weightless*, película ganadora del Premio Kutxabank New Directors.



Lucile Hadzihalilovic zinemagileak Zabaltegi - Tabakalera saria irabazi zuen *La tour de glace / The Ice Tower* filmarekin: "Ez zait hainbeste interesatzen inozentzia haustea, purutasun gisa, ezjakintasunaren galera gisa ulertuta. Ezjakintasunak, babesgabetasunak eta hauskortasunak aukera asko eskaintzen dizkirate".



Jaume Claret Muxart, *Estrany riu / Strange River* filmaren (Zabaltegi - Tabakalera) zuzendaria, filmaren aktoreekin batera: “Sinbolikoa dena interesatzen zait, baina, batik bat, fisikoa dena interesatzen zait”: Hizketaldia Jaume Claret Muxartekin.



“Uste dut kontzentrazio-esparruak oraindik ere ahanzturari eta ukazioari buruz dagoen eztabaidatik kanpo geratzen ari direla”, dio Miguel Ángel Delgadok (irudiaren erdian), *San Simón* filma Made in Spain sailean aurkeztu zuenak.



Ezkerrean, Daniel Sánchez Arévalo zuzendaria *Rondallas / Band Together* filmaren (Belodromoa) taldearekin: “Film familiarra da, baina heldua, *rondalla* bezala, haur txikiak nahiz jende heldua biltzen baititu. Haren energia transmititu nahi nuen, eta familia erakutsi, baina baita konpontzeko dauden familia-dramak eta -arazoak ere”.



Basque Culinary Centerren egin ziren Culinary Zinema saileko filmen proiektzioen ondorengo afariak.



Quim Casas, Lillian Hellmanen atzerabegirakoaren koordinatzailea, Nuria Vidal eta María Adell AEBko gidoilariari buruzko liburuaren hiru egileetako birekin batera: "XX. mende osoa erabateko egile gisa zeharkatu zuen, baina oraindik aztertu eta berreskuratu behar da".



Xiaohong Zhao aktorea, Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorraren ex aequo irabazlea, hunkituta Xiaoyu Qin *Jianyu laide mama / Her Heart Beats in its Cage* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendariarekin batera: "Espero dut jende askok ikustea filma, batik bat gizonek, eta lagun dezala etxeko indarkeriaren arazoari buruz kontzientziatzen. Denon artean geldiarazi behar dugu".



Agustín Díaz Yanes, *Un fantasma en la batalla / She Walks in Darkness* filmaren (Sail Ofiziala, lehiaketatik kanpo) zuzendaria, filmeko aktoreekin batera: "ETAr buruzko film ugari ari dira egiten eta askoz ere gehiago egingo dira, ETak Espainiako demokraziaren ia 40 urte zeharkatu baitzituen".



"Espainian, umorea errealismotik sortzen da. Espainian errealista izan nahi baduzu komedia bat egiten ari zara. Interakzioan egoteko gure modua umorea da, eta horrek gure herrialdearen errealitate komikoa eta zentzugabea islatzen du", dio Paco Plazak (erdian), *La suerte / Fate* telesailaren (Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak) zuzendariak.



Donostia Hiria Publikoaren Saria irabazi duen *The Voice of Hind Rajab* filma (Perlak) eman ondoren, Gazako genozidioaren kontrako manifestazioa egin zen hirian barrena. "Hinden ahotsa ez zen inoiz isilarazi behar, baina zinemarekin bederen ahots hori entzuten jarraituko dugu", ziurtatu zuten Saja Kilani eta Motaz Malhees aktoreek.



"Zinema egiteak denbora zizelkatzeko aukera ematen dit", dio Hlynur Pálmason (ezkerrean) zinemagileak. Bi film aurkeztu zituen Donostian: *Ástin sem eftir er / The Love That Remains* (Perlak) eta *Jóhanna af Örk / Joan of Arc* (Zabaltegi - Tabakalera).



Edward Berger errealizadorea, Mike Goodridge ekoizlearen eta Fala Chen eta Colin Farrell aktoreen artean, *Ballad of a Small Player* filma (Sail Ofiziala) eman eta gero: "Film ahalik eta operistikoena izatea nahi genuen, baina baita samurra eta ahula ere, Colinen pertsonaia bezalakoa".



James Vanderbilt zuzendaria eta Amber Freeman emaztea, alfonbra gorrian, *Nuremberg* filmaren (Sail Ofiziala) proiektzioarako bidean: "Russell Crowek bazekien ez zela bizitzeko espazio mental ona, baina Hermann Göringen bertsioa gizatiarra interpretatzen zuela ziurtatu nahi zuen".



“Maitasunaren bitartez baino ez dakit filmatzen. Ez nintzake etsaia filmatzeko gai izango. Munstrokeria seinalatzeko moduak bilatzen ditut, baina ez dakit munstro bat filmatzen”, dio José Luis Guerinek. *Historias del buen valle / Good Valley Stories* haren filmak Epaimahaiaren Sari Berezia lortu zuen, besteak beste.



Guillermo Galoe, *Ciudad sin sueño / Sleepless City* filmaren (Perlak) zuzendaria: “Poesiak ez daki mezuez, ez du helburu moralizatzailearik, eta zinemak ere ez. Zinema ez dago ikusleei irakasteko, gu eta giza konplexutasuna aurrez aurre jartzeko baizik”.



“Oso jende gutxi atzeratzen da onik famatik” uste du Leivak, *Hasta que me quede sin voz / Until My Voice Breaks* dokumentalaren (Belodromoa) protagonistak. Mario Forniéseke eta Lucas Nollak zuzendu dute ez fikzio hori.



Carmina Gustránek, “Espainia askatasunean, 50 urte” ospakizunaren komisarioak *Gazteak, zinema, memoria eta demokrazia* zikloaren proiektzioak aurkeztu zituen.



Koldo Almandoz (hirugarrena eskuinetik), *Zeru ahoak / Mouths of Sky* telesailaren (Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak) egilea: "Gaur egun ia errazagoa da telesail bat ekoiztea film bat ekoiztea baino, baina ez nago telesailen aurka; izan ere, lana ekarri dute sektorerara eta ikus-entzunezkoen izaera popularra indartu dute".



"Nire lehen erantzukizuna entretenitzea da, baina ondo dago ere segur aski hemendik denbora batera ahaztu egingo diren istorioak kontatzeko aukera izatea", ziurtatu du Alberto Rodríguez (bigarrena ezkeretik), *Anatomía de un instante / The Anatomy of a Moment* telesailaren (Sail Ofiziala, lehiaketatik kanpo) zuzendariak.



Jennifer Lawrence, Lynne Ramsayren *Die My Love* filmaren protagonista eta ekoizlea, bere Donostia Sariarekin: "Istorioei esker, gainerakoei buruz ikas dezakegu, esperientzia emozional bat parteka dezakegu eta, batzuetan, justu une egokian ohartu gaitezke denok batzuetan ematen duena baino lotuago gaudela".



Diego Céspedes zuzendaria (eskuinean), Matías Catalán eta Bruna Ramírez *La misteriosa mirada del flamenco / The Mysterious Gaze of the Flamingo* filmaren (Horizontes Latinos) aktoreekin. Filmak gazteriarren DAMA saria irabazi du: "Artistak politikoagoak izan behar gara. Erradikalizatu egin behar gara".



"Beti iruditzen zaigu interesgarriagoa ez duguna geure bizitza propioa baino, azken hori grisa, errutinazkoa... iruditzen baitzaigu", dio Rebecca Zlotowski zuzendariak. *Vie privée / A Private Life* filma Perlak sailean aurkeztu zuen.



Beste urte batez Belodromoa sailean estreinatu zen *Go!azen* telesailaren denboraldia.



Xabier Elorriagak, José Julián Bakedanok, Anjel Lertxundik eta Alfonso Ungriak Euskadiko Filmetegiaren saria jaso zuten 1985ean zuzendu zituzten eta Klasikoak atalean programatu diren *Zergatik panpox*, *Oraingo izen gabe*, *Hamaseigarrenean aidanez* eta *Ehun metro* film ertainen zaharberritzeen estreinaldian.



Guillermo del Torok zuzendutako *Frankenstein* izan zen 73. edizioko ezusteko filma. Filma Victoria Eugeniean eta Antzoki Zaharrean eman zen, bai eta belodromoko pantaila erraldoian ere, azken egunean.



Lesley Manville aktorea (urdinez) eta Kasia Adamik *Winter of the Crow* Sail Ofiziala iteko filmaren egilea: "Enpatia behar dugu berriz ere erregimen totalitarioetarantz joaten ari garen une batean. Mundua ahazten ari da demokraziarik gabe bizitzea zer den".



Alauda Ruiz de Azúa, Urrezko Maskorra jaso duen *Los domingos / Sundays* filmaren egilea: "Zinema maite dut beti erakusten didalako bestela begira daitekeela edo zurekin zerikusirik ez duen zerbait ulertzen saia zaitezkeela. Zerbait ulertzen saiatzeak ez du esan nahi hura baliozkotzat jotzea edo legitimotzat hartzea".



Donostia Zinemaldiaren 73. edizioan saritutakoen familia-argazkia.



Selfis: Jennifer Lawrence (1), Angelina Jolie (2), Paul Dano (3), Juliette Binoche (4), Mario Casas (5), Colin Farrell (6), Stellan Skarsgård (7), Susana Abaitua (8), J.A. Bayona (9), Louis Garrel (10).

Babesle Ofizialak - Patrocinadores Oficiales - Official Sponsors

Media Partner



Laguntzaile Ofizialak - Colaboradores Oficiales - Official Collaborators



kutxabank

